

# **Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legea.**

*Testu hau Estatuko Buletin Ofizial batzuetan argitaratutako testuen itzulpena da.  
Ez du izaera ofizialik.*

*Ondoko legeek ezarritako aldaketak barne hartzen ditu:*

*Zerga-neurriei, administrazio-neurriei eta gizarte-neurriei buruzko abenduaren 30eko 62/2003  
Legea;*

*Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea.*

## **ZIOEN ADIERAZPENA**

### **I**

Konstituzio Auzitegiak 2009/1989 eta 2027/1989 konstituziotasun-errekurtsio metatuen inguruan eman zuen epaian (1999ko azaroaren 11n eman zuen), errekurtsio horiek zati batean baietsi, eta adierazi zuen Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeko 4, 7, 9, 10, 11 eta 25. a) eta c) artikuluetan zuzenean zein aipamen bidez ageri den “Estatuko merkatu osoan edo haren zati batean” delako klausula Konstituzioaren aurkakoa dela.

Epai hori dela-eta, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legean eta lege hori garatzeko arauetan estaturako eta autonomia-erkidegoetarako aurreikusitako exekuzio-eskumenak garatzeko esparrua zehaztu beharra dago, estatu-lege bidez.

### **II**

Aitortu duenez —haxe da auzitegi nagusi horrek epaia emateko erabili dituen oinarri juridikoen abiapuntua—, “lehiaren defentsa” izeneko gaia, berez, Konstituzioak ez du berariaz estatuaren esku uzten. Eta, hortaz, Konstituzioak estatuaren esku uzten dituen eskumenek eragozpenik ez badakarte, gai hori autonomia-erkidegoena ere izan daiteke, haien estatutuen arabera.

Autonomia-estatutuak aztertuz gero, behin baino gehiagotan aipatzen da —nahikoa orokorra da— autonomia-erkidegoek badutela barruko merkataritzarako eskumenik, eta horrek, Konstituzio Auzitegiak lehen aipatu dugun epaian zehazturiko doktrinaren arabera, “lehiaren defentsarekin” zerikusia duen eskumena ere bere baitan bildurik dauka, exekuzio-esparrura mugaturik egon arren ere, eskumen legegilea estatuaren esku baitago, kasu guztietan.

Ondorioz, estatutuetan hala aurreikusirik daukaten autonomia-erkidegoek badute “barruko merkatuaren” inguruko exekuzio-eskumenik, eta, horrenbestez, baita “lehia babestearn” ingurukorik ere.

Baina, edonola ere, eskumen horiek erabiltzeko orduan, ezin da ahaztu erabilera hori nazio-ekonomiaren batasuna babestu beharrarekin eta merkatu bateratu baten beharrarekin elkarturik egin behar dela, estatuak merkatu bateratua behar baitu bere beste konstituzio-eskumen bat garatze aldera —Konstituzioaren 149.1.13.8 artikulua—, hau da, ekonomia-jardueraren oinarriak zehazteko eta jarduera horren plangintza orokorra koordinatzeko, eta hori guztia ekonomia-jarduerarako oinarritzko baldintzen berdintasuna zaintze aldera —funtsezko legearen 139.1 eta 149.1.1.8 artikulua—. Horregatik, Konstituzio Auzitegiak uste du araugintzak estatuaren esku egon behar duela, baina ez araugintzak bakarrik, baita

nazio mailako merkatu bateratua benetan osatzeko balio duen exekuzio-jarduera orok ere. Beraz, lehia garbia erkidegoez gaindi edo nazio-merkatu osoan itxuraldatzeko moduko jardueren inguruko exekuzio-langintza estatuaren esku egongo da, baita langintza hori autonomia-erkidegoetako edozeinen lurraldean gauzatu beharrekoa bada ere.

### III

Beste alde batetik, Konstituzio Auzitegiak estatuari eskumenaren diziplina nazio-merkatu osoan bat eta bera izango dela bermatzeko beharrezko koordinazio-baliabideak taxutzeko agintzen dio, eta baita, bai horixe, beharrezko konexio-baliabideak antolatzeko —baliabide horiek Konstituzioaren eta estatutuen arabera zuzenak izan beharko dute— eta elkarri lagundu eta informazioa emateko ezinbesteko tresnak antolatzeko ere.

### IV

Epai horretako zortzigarren oinarri juridikoan aitorturik dagoenez, autonomia-erkidegoek autonomia-estatuuetan aitorturik dituzten exekuzio-eskumenak gauzatzeko beharrezkoak dituzten konexio-puntuak zehazten ez diren bitartean —eta estatuak zehaztu behar ditu—, inpugnaturiko legearen aginduek indarrean jarraituko dute, deusezak direla deklaratu izanagatik ere. Bestela, araurik ez litzateke egongo, eta gabezia hori lehiaren defentsaren inguruko interesen aurkakoa izango litzateke (Konstituzioaren arabera garrantzia dutenez ari gara).

Hala eta guztiz ere, Konstituzio Auzitegiak berak onartzen du deuseztasun horren ondorioak denboran luzatzeak egoera berezia eta behin-behinekoa sortzen duela, lehenbailehen amaitu beharrekoa, estatuak konstituzioarekiko duen leialtasuna aldarrikatuz, ahalik eta azkarrena eman diezaion bukaera.

Horregatik, legegintzako ekimen baten bidez, estatuaren eta autonomia-erkidegoen eskumenak exekutatzeko esparrua zehaztea da egin beharrekoa, Konstituzio Auzitegiak eman dituen irizpideak goitik behera zaindurik. Eta ekin behar horri heldu dio lege honek.

### V

Lege honetan, bost artikulua, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat dituzue. Lehia babestearen inguruko eskumenak behar bezala erabiltze aldera Konstituzio Auzitegiak beharrezkoak jo dituen atalak artikulua horietan daude jasota.

1. artikuluan, konexio-puntuak datoz zehazturik. Eskumenak estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean nola erabili mugatzen dute, orokorrean. Puntu horiek 1999ko azaroaren 11ko epaiko zazpigarren oinarri juridikoan daude oinarriturik, eta, han jasota dagoenez, lehiaren defentsa dela eta autonomia-erkidegoen esku utz daitekeen eskumen objektiboa dena delako autonomia-erkidegoko lurraldean egin beharreko exekuzio-ekintzetara dago mugaturik, autonomia-erkidegoaz gaindiko merkaturari eragiten ez badiote. Horrek esan nahi du estatuaren eskumena ez dela arauak egitea soilik, hau da, dena delako praktikak lehia garbia autonomia-erkidegoaz gaindi edo nazio-merkatu osoan itxuraldatu badezake, praktika horren inguruko exekuzio-jarduera guztietara ere iristen dela estatuaren eskumena, baita jarduera horiek autonomia-erkidego baten lurraldean egin behar badira ere.

Legeak printzipio hori irizpide orokortzat aitortzen du, eta urrunago ere iristen da: xede modura akordio debekatuetarako, akordio debekatuen baimen berezietarako, nagusikerietarako eta leialtasun faltaz lehia garbia desitxuratzen den kasuetarako jarduerak dituzten prozedurei buruzko eskumenetara ere iristen baita. Eta, eskumenak behar bezala erabiliko dituztela bermatzearen, eragile ekonomikoen segurtasun juridikoa bermatzearen

eta arauak beti berdin aplikatuko direla bermatzearren, eta hori guztia irizpide orokor hau interpretatu beharrak ahalik eta gatazkarik gutxienak sor ditzan, legean beste arau osagarri batzuk ere badatoz, jokabide bat estatuaren eskumenpekoa noiz den eta autonomia-erkidegoarena noiz argi uzteko.

Arau horiek, azken batean, esan nahi dute nazio-merkatuaren batasunaren aurkakoak edo Konstituzioan aitorturiko honako printzipio hauen aurkakoak izateko moduko jokabideak estatuaren eskumenpekoak direla: Espainiako luraren zati baten eta bestearen artean oreka ekonomiko egokia eta zuzena lortzea; pertsonen nazio-lurralde osoan joan-etorrian ibiltzeko eta kokatzeko behar duten askatasuna eta ondasunen joan-etorrietarako behar den halakoxe askatasuna; eta Konstituzioan dakartzan eskubideak erabiltzen eta betebeharrak betetzen espainiar guztiak berdinak izatea.

2. artikulua, berriz, gatazkak ebazteko baliabide dinamiko eta orekatu bat dakar, konexio-puntu horien aplikazioak halako gatazkarik sortzen badu ere. Gatazkak ebazteko prozeduren abiapuntua informazio-trukaketa da, hau da, salaketarik edo baimen-eskaririk jasotzen badute, edo ofizios jardueraren bat egiten badute, lehia defendatzeko erakunde eskumendunen artean informazio-elkartruke simetrikoa behar da egon, hartara, ez baldin badira ados jartzen ea prozedura jakin bat nor izapidetu eta ebatzi behar duen, auzia tentuz aztertzeko nahikoa denbora hartu ondoren, Gatazken arloko Aholku Batzordeak irizpena egin dezan. Irizpen hori ez da loteslea izango. Gatazken arloko Aholku Batzorde horretan estatuko administrazioak ere esku hartuko du, eta ez auzia estatuko administrazio horren eta autonomia-administrazioen artean pizten denean bakarrik, autonomia-erkidegoen arteko auzietan ere bai baizik, balitekeelako halakoetan eztabaidan izaten diren jokabideen ondorioak autonomiez gaindikoak izatea.

Dena delako prozedura izapidetzeko eta ebazteko eskumena ondo emanda dagoen baloratzea izango da aholku-batzorde horren lana, hartarako irizpen baten bidez.

Gatazkan diren administrazioek ez badute irizpenaren emaitza onartzen, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikora jo beharko da, hau da, auzitegi nagusi horrek erabaki beharko du zein administrazioak ebatzi behar duen dena delako prozedura, eta, horretarako, estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko edo erkidego horien elkarren arteko gatazka bat plazaratu beharko du, positiboa nahiz negatiboa. Baina, gatazkan diren administrazioen arteko lankidetzarako eta koordinaziorako beste prozedura batzuk ere aurreikusita badaudenez, gatazka Konstituzio Auzitegira eramate horrek eskumen-auziak ebazteko azken bidea izan beharko du.

Gatazken arloko Aholku Batzordea 3. artikuluan dago arauturik. Eta, arbitraje-lanetarakoenez, parekidea da, jakina. Horrenbestez, eta osaera parekide horri eustearren, estatuak eta autonomia-erkidegoek ordezkoko-kopuru berbera izango dute, eta orotara izan behar duen kide-kopurua, berriz, malgua, gatazkan zenbat autonomia-erkidego dagoen gorabeheran.

4. artikuluan, berriz, Lehiaren Defentsarako eskumen horiek autonomia-erkidegoek exekutatzeko erakundeetarako dakartzan ondorioak datoz arauturik. Esate baterako, gauzarik nabarmenenetako bat aipatzearren, baliteke autonomia-erkidego batzuetako erakundeetan eskumen horiek garatzeko beharrezko antolakuntza-baliabiderik ez izatea, eta, halakoetan, bada, estatuko organoek erkidego horiei laguntzeko aukera izango dute, ohiko bideak erabiliz; beste bat aipatzearren: autonomia-erkidegoetan Lehiaren Defentsarako lanerako erakunde eskumendunak sortzeko esparrua ere badakar legeak, erakunde horiek jardunean bete beharreko prozedura-arauak argitzeaz bat.

5. artikuluan, Konstituzio Auzitegiak erakutsitako norabideari zuzen helduz, hiru koordinazio-baliabide datoz arauturik, estatuak eta autonomia-erkidegoek eskumenak

tirabirarik gabe garatu ditzaten; alde batetik, Lehiaren Defentsako Kontseilua sortzen du. Gai honi buruzko eskumenik badaukaten lurralde-administrazio guztietako ordezkariak egongo dira bertan, eta, oinarri-oinarrian –aipa ditzagun ardurak-, merkatuetako lehiari buruzko garrantzizko informazioa zentralizatu, legea aplikatzeko orduan behar bezalako koordinazioa lortzeko irizpideen gainean eztabaidatu, eta gai honekin zerikusia duten kontuak arautzen dituzten xedapenei buruzko irizpenak egin, horiexek bere ardurak.

Arau horren atal berezi batean, beste alde batetik, lehia garbia murrizten duten jokabideen berri emateko tresnak dira mintzagaia. Azken batean, erakunde eskumendunek halako jokabideren bati antzematen diotenean, informazio-trukea osoa, simetrikoa eta elkarrekikoa izango dela bermatzea da kontua, beren lana egin ahal izan dezaten.

5. artikulua, azkenik, Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari autonomia-erakundeetan izapideturiko prozeduretan esku hartzeko lege-indarra ematen dio. Halakoetan, lege-indar hori itxitura-baliabide modura ulertu behar da, hartara, Lehiaren Defentsarako ordenamendua aplikatzeko orduan betetzen den doktrina beti bat eta bera izan dadin. Lehiaren Defentsarako arauak berdin aplikatzea, zalantzarik gabe, oso-oso garrantzitsua da nazio-merkatuaren batasuna eta ekonomian jarduteko oinarrizko baldintzen berdintasuna bermatzeko.

## VI

Lehen xedapen gehigarrian, egokitzapen-lana da aipatu beharrekoa. Izan ere, 16/1989 Legearen testuan, behin baino gehiagotan, Lehiaren Defentsarako Zerbitzua eta Auzitegia aipatzen dira soilik, eta aipamen horiek errealitate berrira egokitzen ditu, lege honetan aurreikusita dagoen eskumen-eredua martxan jartzen denean beste administrazio-organo batzuk ere sortuko baitira.

Bigarren xedapen gehigarrian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 36.3 artikuluan jasota datorren agindua dago ostera idatzita, hau da, berezko beste hizkuntza bat daukaten autonomia-erkidegoetako erakundeek –Lehiaren Defentsarako organoek ari gara- Lehiaren Defentsarako Auzitegira eta Zerbitzura bidaltzen dituzten komunikazio eta jakinarazpen guztiak gaztelerara itzuli behar direla dio, idazki horiek ondorioak dena delako autonomia-erkidegoaren lurraldetik kanpora ere sortzen dituztelako.

Hirugarren xedapen gehigarrian, berriz, arlo-legediak Telekomunikabideen Merkatuko Batzordearen esku uzten dituen eskumenak ukitu gabe uztea erabaki da.

Xedapen iragankor bakarrean jartzen duenez, azkenik, hartarako eskumena estatutuan aurreikusita duten autonomia-erkidegoek Lehiaren Defentsarako beren erakundeak osatu arte, estatuko organoek erabiliko dituzte autonomia-erkidegoen exekuzio-eskumenak; izan ere, ordezkapen-sistema hori gabe, arau-hutsunea eta antolaketa-hutsunea eragiteko arriskua egongo litzateke, eta, horrela, gaitza gerta liteke esparru autonomikoetan lehia beharra murrizteko moduko jokabideak jazartzea.

### 1. artikulua.- Konexio-puntuak.

1. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeko eskumenak erabiltzea, lege horretako 1., 6. eta 7. artikuluetan aurreikusitako jokabideetarako prozedurei dagokienean, estatuaren ardura izango da, baldin eta jokabide horiek lehia garbia autonomia-erkidegoez gaindi edo nazio-merkatu osoan itxuraldatzen badute edo itxuraldatzeko modukoak badira, baita dena delako eskumena autonomia-erkidegoetako edozeinetan erabiltzekoa bada ere.

2. Eta kasu hauetan beharko da ulertu, kasu hauetan beti, lehia garbia erkidegoaz gaindi edo nazio-merkatu osoan dela itxuraldatzen edo itxuraldatu daitekeela:

a) Jokabide batek lehia garbia autonomia-erkidegoaz gaindi edo nazio-merkatu osoan itxuraldatzen badu edo itxuralda badezake, edo nazio-merkatuaren batasunari eragin badiezaioke, besteak beste, eraginpeko merkatuaren tamaina kontuan, dena delako enpresaren merkatu-kuota kontuan, lehia nola eta zenbateraino mugatu duten kontuan edo lehiatzaileen nahiz lehiatzaileak izan daitezkeen artean eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen artean dituen ondorioak kontuan, baita jokabide horiek autonomia-erkidegoaren lurraldean gauzatu badira ere.

b) Jokabide bat Espainiako lurraldearen zatien artean oreka ekonomiko egokia eta zuzena taxutzearen aurkakoa izan baldin badaiteke; jokabide horrek dakartzan neurriak oztopo baldin badira, zuzenean nahiz zeharka, pertsonak nazio-lurralde osoan oztoporik gabe joan-etorrian ibiltzeko edo kokatzeko eta ondasunak halaxe joan-etorrian ibiltzeko; merkatua zatika banatzea ekar badezake; edo Konstituzio-eskubideak erabiltzeko eta Konstituzio-betebeharrak betetzeko orduan espainiar guztiak berdinak izango direla bermatzeko oinarritzko baldintzei kalte egin badiezaieke; baita jokabide horiek autonomia-erkidego baten lurraldean gauzatzen bada ere.

3. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeko eskumenak erabiltzea, lege horretako 1., 6. eta 7. artikuluetan aurreikusitako jokabideetarako prozeduretan, gai honi buruzko eskumenak dituzten autonomia-erkidegoen ardura izango da —nork bere lurraldean izango du ardura hori—, baldin eta jokabide horiek lehia garbia dena delako autonomia-erkidegoan itxuraldatzen badute edo itxuraldatzeko modukoak badira, autonomia-erkidegoaz gaindi edo nazio-merkatu osoari eragin gabe.

4. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeko 4. artikuluan zehazturik dauden baimenekin zerikusia duten eskumenak erabiltzea estatuaren edo autonomia-erkidegoen ardura izango da, artikulua honetan zehazturiko konexio-puntuaren arabera.

Baina, autonomia-erkidego batek baimen bat eman, eta, gero, baimendutako jokabideak eragina autonomia-erkidegoaz gaindi edo estatu-merkatu osoan duela-eta, eskumena nori eman erabakitzeko baldintzak aldatu egin badira, beste baimen bat beharko da, eta Lehiaren Defentsarako estatu-organoen ardura izango da baimen hori ematea.

5. Estatuaren ardura izango da, kasu guztietan:

a) Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeko I. tituluko II. eta III. kapituluetan zehazturik datozen arauak aplikatzea.

b) Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeko 5. artikuluan zehazturik datozen akordio-kategoriak, erabakiak, gomendioak eta praktika hitzartuak edo paraleloak —jakinaren gainean paraleloak— baimentzea, salbuespen-erregelamenduak erabiliz.

c) Lehiaren Defentsarako kontuetan, beste nazio-aginte batzuetan edo nazioarteko foro eta erakunde batzuetan ordezkari-lanak egitea, eta, bereziki, Europar Batasunean, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundean, MMAn eta Merkataritza eta Garapenari Buruzko Nazio Batuen Konferentzian.

d) Europako Erkidegoaren Ituneko 81. eta 82. artikulua eta handik datorren zuzenbidea Espainian aplikatzea, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeko 25 c) artikuluan horri buruz xedaturik dagoenaren arabera.<sup>1</sup>

## 2. artikulua.- Gatazkak ebatzea.

1. Lege honen aplikazioaren ondorioz jasotzen dituzten salaketa guztiak eta baimen-eskari berezi guztiak Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari jakinarazi behar dizkiote autonomia-erkidegoek, eta, ofizioz antzemandako jokabideren batean arau-hauste zantzurik baldin badago –arrazoizko zantzia beharko du izan- jokabide horiek ere jakinarazi behar dizkiote, 5.bi artikuluan zehazturikoaren arabera. Jakinarazpen horretan, ustez organo eskumenduna zein den ere adierazi beharko da, organo hori estatukoa izan nahiz autonomia-erkidegokoa izan.

Hurrengo hamabost egunetan Lehiaren Defentsarako Zerbitzuko zuzendariak ez badu aurkako iritzirik adierazten, jakinarazpena egin duen autonomia-erkidegoko organo eskumendunak prozedurari hasiera eman ahal izango dio.

Lehiaren Defentsarako Zerbitzuko zuzendariak uste badu jakinarazitako jokaerari Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legea aplikatu behar zaiola eta berea duela aplikazio hori egiteko eskumena, hala jakinaraziko dio jakinarazpena egin duen organoari.

Bost eguneko epean ez baldin baditu jarduerak Lehiaren Defentsarako Zerbitzura bidaltzen, jakinarazpena egin duen organoak bere eskumenari bere horretan eusten diola ulertu beharko da.

Jakinarazpena egin duen organoak bere eskumenari bere horretan eusten badio, gatazkan diren administrazioetako edozeinetako organo eskumendunak 3. artikuluan zehazturik datorren Gatazken arloko Aholku Batzorderako deia egiteko eskatuko du, hamabost eguneko epean txostena egin dezan.

Aurreko lerroaldean zehazturik dagoen txosten hori egin eta gero, hurrengo hamar egunetan estatuko edo autonomia-erkidegoko dena delako organo eskumendunak prozedura hasi ahal izango du. Horrek ez du esan nahi, ordea, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoko IV. tituluko II. kapituluan erabakitakoa aplikatu behar ez denik.

2. Jaso dituen salaketa eta baimen-eskari berezi guztiak eta ofizioz egindako jarduera guztiak ohar labur batean bildu, eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak autonomia-organoei jakinarazi behar die; ohar horretan, ustez organo eskumenduna zein den ere adierazi beharko du, organo hori estatukoa izan nahiz autonomia-erkidegokoa izan.

Hurrengo hamabost egunetan eskumena berarentzat aldarrikatzen duen beste inongo organok ez badio aurkako iritzia helarazten, Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak bidalitako ohar horretan eskumenduntzat jo den organoa prozedura hasteko moduan egongo da; halakoetarako, jasotako salaketen edo baimen-eskari berezien eta ofizioz egindako jardueren berri berehala helarazi behar du Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak.

Jokabide hori dela eta beste organo autonomiko batek ere bere burua eskumenduntzat hartzen badu, Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak edo dagozkion organo autonomikoek

---

<sup>1</sup> Zerga-neurriei, administrazio-neurriei eta gizarte-neurriei buruzko abenduaren 30eko 62/2003 Legeko 98. artikulua arabera idazketa.

Gatazken arloko Aholku Batzorderako deialdia egiteko eskatuko dute -3. artikuluan dago zehazturik-, hamabost eguneko epean txostena egin dezan.

Aurreko lerroaldean zehazturik dagoen txosten hori egin eta gero, hurrengo hamar egunetan estatuko edo autonomia-erkidegoko dena delako organo eskumendunak prozedura hasi ahal izango du. Horrek ez du esan nahi, ordea, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoko IV. tituluko II. kapituluan erabakitakoa aplikatu behar ez denik.

3. Lehiaren Defentsarako Zerbitzuko zuzendariak uste baldin badu autonomia-erkidego bateko organo eskumendunak 5.bi artikuluan xedaturikoaren arabera jakinarazitako jokaera ez dela erkidego horren eskumenpekoa, beste autonomia-erkidego batena baizik, bateko eta besteko organo eskumendunei jakinaraziko die, hamabost eguneko epean jokabide horrekiko eskumena atzera erakutsi edo berriro eutsi diezaioten.

Bi autonomia-erkidegoetako organoek uste badute direla jokaera horrekiko eskumendunak, estatuko organoak edo gatazkan diren administrazioetako edozeinetako organo eskumendunak 3. artikuluan zehazturik datorren Gatazken arloko Aholku Batzorderako deia egiteko eskatuko du, hamabost eguneko epean txostena egin dezan.

4. Prozedura hasi eta gero agertzen bada gatazka, baita ebazpen-aldian bada ere, aurreko lerroaldeetan xedaturikoa bete beharko da. Prozeduraren bat izapide-bidean den bitartean egiten bada Gatazken arloko Aholku Batzorderako deia, prozedura etenda geratuko da berehala eta besterik gabe, eta baita ebazpena emateko eta jakinarazteko epea ere.

5. Organo eskumendunek zehapen-espeditenteak hasi ondoren, jokaera arau-hausleak bertan behera geratzeko beharrezkoak iruditzen zaizkien neurri guztiak hartu ahal izango dituzte; eta, bereziki, jendea ohartarazteko ardura hartuko dute, espeditente horiek hasteko akordioa eragin duten jokaeren eta jokaera horiek etenarazteko hartutako neurrien gainean ohartarazi ere.

6. Artikulu honetan xedaturikoa xedaturik egonda ere, horrek ez du esan nahi dagokion jurisdikzio-biderik erabili ezin denik.

3. artikulua.- Gatazken arloko Aholku Batzordea.

1. Gatazken arloko Aholku Batzordea aholkua eskatzeko organo bat da. Lehiaren Defentsarako legeak aplikatzearen ondorioz estatuko administrazioaren eta autonomia-erkidegokoetako administrazioen artean edo autonomia-erkidegoetako administrazio horien artean eskumenak nori ote dagozkion gatazkarik sortzen bada, halakoak ebazteko balio du bereziki. Irizpenak darabiltza horretarako, baina ez dira lotesleak. Bere eginkizunak betetzeko, batzordeak Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren eta dagozkion organo autonomikoen txostena eska dezake.

2. Gatazken arloko Aholku Batzordeko lehendakaria Ekonomia Ministerioak izendatzen du, Lehiaren Defentsako Kontseiluaren iritzia entzun ondoren, sona handia duen eta Lehiaren Defentsarako lanetan eskarmentu handia duen jende artetik. Bozketetan, berdinketa baldin badago, lehendakariaren botoa erabakigarria izango da eta bost urterako agintaldia izango du; baina, agintaldiaren epea amaiturik, hurrengo lehendakariak agintea hartu arte ere lanean jarraituko du.

3. Gatazken arloko Aholku Batzordea lehendakariak eta kide hauek osatuko dute:

a) Estatuko administrazio orokorraren izenean, Ekonomia Ministerioak izendaturiko ordezkaria, idazkari-posturako.

b) Gatazkan den autonomia-erkidegoaren izenean, bi ordezkari, erkidegoak berak izendaturik.

Eskumen-gatazkek autonomia-erkidego bat baino gehiago harrapatzen badu bere baitan, salbuespen modura, erkidego bakoitzeko ordezkari bana izendatu beharko da. Eta hiru autonomia-erkidego edo gehiago baldin badaude gatazkan, Gatazken arloko Aholku Batzordearen funtzionamendurako, bileretarako deialdietarako, bileretarako edo akordioak hartzeko sistemarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. tituluko II. kapituluaren kide anitzeko organoei buruz xedaturikoa eta Estatuko Administrazio Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legeko II. tituluko IV. kapituluaren xedaturikoa bete beharko da.

4. artikulua.- Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 legea autonomia-erkidegoek exekututzeak erakundeetan dakartzan ondorio batzuk.

1. Prozedurak izapidetzeko eta ebazteko, Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak eta Lehiaren Defentsarako Auzitegiak autonomia-erkidegoetako organo eskumendunekin lankidetzahitzarmenak egin ditzakete, prozeduraren oinarrian den jokabidea estatuaren nahiz autonomia-erkidegoen eskumenpekoa izanik ere. Hitzarmen horietan, lankidetzahori aurrera eramateko moduak eta baliabide zehatzak ere zehaztuko dira.

2. Autonomia-erkidegoetako organo eskumendunen jardueretan ere aplika daitezke Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legean zehazturik dauden exekuzio-prozedurak.

5. artikulua. Koordinazio-tresnak.

Bat.

1. Lehiaren Defentsako Kontseilua estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko lankidetzarako, koordinaziorako eta informazio-trukaketarako organoa da, eta helburua, berriz, lehiari buruzko legeak berdintasunean aplikatzea du.

Lehiaren Defentsako Kontseiluak osoko bilkuretan jarduten du, eta osoko bilkura horiek gutxienez urtean behin egin behar ditu. Lehiaren Defentsako Kontseiluaren funtzionamendua dela-eta, deialdiak direla-eta, bilerak direla-eta edo akordioak hartzeko sistema dela-eta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. tituluko II. kapituluaren kide anitzeko organoei buruz xedaturikoa eta Estatuko Administrazio Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legeko II. tituluko IV. kapituluaren xedaturikoa bete beharko da.

2. Lehiaren Defentsako Kontseiluko osoko bilkurak kide hauek izango ditu:

Lehiaren Defentsarako eskumenak dituzten autonomia-erkidego bakoitzeko ordezkari bat.

Estatuko administrazio orokorraren beste hainbeste ordezkari, Ekonomia Ministerioak izendaturik. Ordezkari horietako bat, bilkurako lehendakaria hain zuzen ere, Lehiaren

Defentsarako Zerbitzuko zuzendaria izango da, eta beste hiru kide, berriz, Lehiaren Defentsarako Auzitegiko hiru kide izango dira, auzitegi horretako lehendakariak izendaturik.

Idazkaria, Ekonomia Ministerioak izendaturik. Hizpidea bai baina botorik ez du izango.

3.<sup>2</sup> Estatuko administrazio orokorraren eta autonomia-erkidegoen arteko partaidetzarako eta lankidetzarako organoa denez, Lehiaren Defentsako Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu:

a) Herri-administrazioek lehia defendatze aldera darabilten politikaren jarraipena egitea, aldian-aldian.

b) Informazio-trukaketa sustatzea eta, lehia defendatzeko arauak aplikatzeko orduan administrazioek zein irizpide erabili dituzten argitze aldera, horretarako azterlanak egitea eta argitaratzea sustatzea, eta, beharrezkoa bada, irizpide horien berdintasun-beharra sustatzea.

c) Lehia defendatzearen arloan, autonomia-erkidegoen exekuzio-eskumenpean diren gaiak ukitzen dituzten xedapen-egitasmo orokorreari buruzko txostenak egitea.

d) Jarraibideak idaztea, lege honen 1. artikulua 2. paragrafoa nola interpretatu behar den azaltzeko.

Bi.

Lege honen aplikazioa errazte aldera, elkarri informazioa emateko tresna hauek izango dira martxan:

a) Lege honen aplikazioaren ondorioz jasotzen dituzten salaketa eta baimen-eskari berezi guztien kopia Lehiaren Defentsarako Zerbitzura bidali behar dute autonomia-erkidegoek. Eta ofizioz antzemandako jokabideren batean arau-hauste zantzurik baldin badago –arrazoizko zantzia behar du izan- jokabide horien berri Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari eman behar diote.

b) Lehiaren Batzorde Nazionalak, beste alde batetik, jaso dituen salaketa guztiak eta ofizioz egindako jarduera guztiak ohar labur batean bildu, eta autonomia-erkidegoetako organoetara bidali behar ditu, baldin eta tartean arau-hausteen arazoizko zantzurik badago. Halakoetan, oinarrian dagoen jokabideak dena delako autonomia-erkidegoarekin zerikusia izan behar du.<sup>3</sup>

c) a) eta b) paragrafoetako jokaera horri ofizioz antzeman baldin badiote, jokaera horren azalpena izango da ohar hori. Azalpen horretan, alderdiak zein diren, zein esparrutakoa den eta espedienteari hasiera emateko dauden arazoiak ere adierazi beharko ditu.

d) Irekitzen diren espedienteak direla-eta, espedienteak autonomia-erkidegoren bateko lurraldea ukitzen badu, Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak autonomia-erkidego horretako dagozkion organoei jakinarazi behar die.

Hiru.

---

<sup>2</sup> Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko hamargarren xedapen gehigarriaren arabera idazketa.

<sup>3</sup> Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko hamargarren xedapen gehigarriaren arabera idazketa.

Lehiaren Defentsarako Legea berdintasunean aplika dadin saiatzearren, autonomia-erkidegoek Lehiaren Defentsarako dauzkaten organoek izapideturiko administrazio-prozeduretara agertzeko aukera izango du Lehia Babeseko Zerbitzuak, interesdun modura.

Prozedurari amaiera ematen dioten akordio eta ebazpen guztiak autonomia-erkidegoetako organoek Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari jakinarazi behar dizkiote, berdin izapide-aldian hartu dituzten edo ebazpen-aldian hartu dituzten, horrela, zerbitzu horrek akordio horien aurkako errekurtsoa jartzeko aukera izan dezan, hartarako toki egokian, hala egin behar bada.

Lau.<sup>4</sup>

Lehiaren Batzorde Nazionalak, bereak diren eginkizunak aurrera eramaterakoan, autonomia-erkidegoko organoari derrigorrezko txosten ez loteslea igortzeko eskatuko dio, horretarako hogeit eguneko epea emanda, hain zuzen ere Lehia Babesteko Legearen 1, 2 eta 3. artikuluetan edo Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluetan aurreikusitako jokaerekin zerikusia izango duena, baldin eta jokaera horrek autonomia-erkidegoa baino handiagoko eremu bati edo merkatu nazionalari eraginda ere, kasuan kasuko autonomia-erkidegoan eragin berezia badauka.

Horretarako, Lehiaren Batzorde Nazionalak kasuan kasuko autonomia-erkidegoko organo autonomikoari gertakariak zehazteko agiriaren kopia igorriko dio, eta hala denean, salaketaren eta espedientean agertzen diren agirien eta egindako frogen kopiak, eta gertakariak zehazteko agirian interesdun gisa ageri direnei horren berri jakinaraziko zaie.

Lehiaren Batzorde Nazionalak kasuan kasuko autonomia-erkidegoko organo autonomikoari jokaera horien inguruko prozedurari amaiera emateko hartutako akordioen eta ebazpenen berri emango die, bai instrukzio-fasean zein ebazpen-fasean.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA. Lehiaren Defentsarako Auzitegia eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzua direla-eta, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legean dauden aipamenak.

1. Jarraian, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeko artikuluetan Lehiaren Defentsarako Auzitegiari buruz eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari buruz jasota datozen aipamenak daude bildurik. Artikulu horietan arauturik dauden administrazio-ahalak eta prozedurak autonomia-erkidegoen eskumenpeko jokaerentarako erabiltzen edo izapidetzen badira –lege honetako 1. artikuluan begiratu behar autonomia-erkidegoen eskumenpekoak diren edo ez-, aipamen horiek dena delako gaiari buruzko eskumenak dituzten autonomia-erkidegoetako organoentarako ere balioko dute:

4. artikulua. 7. artikulua.  
9. artikulua. 10. artikulua.  
11. artikulua. 12. artikulua.  
13. artikulua. 29. artikulua.  
31. artikulua. 32. artikulua.  
33. artikulua. 34. artikulua.  
36. artikulua. 36 bis artikulua.  
37. artikulua. 38. artikulua.  
39. artikulua. 40. artikulua.  
41. artikulua. 42. artikulua.  
43. artikulua. 44. artikulua.

---

<sup>4</sup> Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko hamargarren xedapen gehigarriaren araberrako idazketa.

45. artikulua. 46. artikulua.  
47. artikulua. 48. artikulua.  
49. artikulua. 51 bis artikulua.  
53. artikulua. 56. artikulua.

2. Estatuan Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren esku dauden eskumenak darabiltzaten autonomia-erkidegoetako organoek independentziaz, lanbiderako kualifikazioz eta lege-araubidearen mende jardun behar dute.

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.** Beste hizkuntza ofizialen bat ere baduten autonomia-erkidegoek Lehiaren Defentsarako Zerbitzura bidalitako komunikazioak eta jakinarazpenak gaztelerara itzultzea.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 36. artikuluko 3. lerroaldean xedaturik dagoenaz bat, autonomia-erkidegoetako organo eskumendunek Lehiaren Defentsarako Zerbitzura eta Lehiaren Defentsarako Auzitegira bidaltzen dituzten komunikazio eta jakinarazpen guztiak gaztelerara itzuli beharko dira.

**HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.** Telekomunikabideetako Merkatu Batzordearen esku utzitako eskumenak.

Lege honetan xedaturik dagoenak ez die berariazko legeetan Telekomunikabideetako Merkatu Batzordeari ematen zaizkion eskumenei ezer kentzen.

**XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.**

Autonomia-erkidegoek Lehiaren Defentsarako beren organoak eratu arte, estatuak jarraituko du haiei dagozkien eskumenak erabiltzen.

**AZKEN XEDAPEN BAKARRA.** Indarrean sartzea

“Estatuko Aldizkari Ofizialean” argitaratu eta hiru hilabetera jarriko da indarrean lege hau.